

## NORANTZA

## ANA REKA

BERREGOKITZEKO BULEGOAREN KOORDINATZAILEA

# «Auzokideen bizi kalitatea hobetzea da gure helburua»

Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalua auzoen egoera kaskarraren aurrean, Berregokitzeko bulegoak auzo hauekako biztanleen bizi kalitatea hobetzea du helburu.

## AMAIA MUNDIRANO

Ana Reka Bilboko udaletxean zinegotzi izandakoa da. Oraingoan, ordea, beste lan bati ekin dio: Bilboko hiru auzo garrantzitsu berregokitzearan aldeko lanari, alegia.

Zer beharrek bultzatuta sortu zen Berregokitzeko bulego hau?

Iaz Eusko Legebiltzarrek eta Bilboko Udalak ez-legezko proposamen bat sinatu zuten Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalua auzoak berregokitzeko helburuarekin. Berau aurrera eramaterako garaietan, zer-nolako tresnak behar ziren aztertu eta, beste gauza batzuen artean, bulego bat sortzea erabaki zen egitasmoa bultzatzeko eta jarraipena egiteko. Gure lana auzo hauekako jendearekin etengabe harremanetan egotean oinarritzen da. Sei hilabete daramatzagu lanean eta egin dugun guztia egitasmo hau errealtate bihurtu dadin lan egitea izan da.

Zein da auzo hauen egoera?

Auzo hauek 14.000 biztanle bizi dira eta dituzten arazoak hiru arlotan bana daitezkeela esan dezakegu. Batetik, hirigintzaren aldetik dauden arazoak aipa daitez-

ke: etxebizitzak oso kaskarrak dira eta denbora askoan ez da hauek berregokitzeko aukerarik izan. Bestalde, ordenamenduen aldetik ere arazoak daude, oso kale zaharrak, estuak, argi gutxiokoa... dira. Bigarren arloa ekonomiari dagokiona da: auzo hauek lan-gabezia tasa oso altua da eta dauden

saltokiek ere hainbat arazo dituzte aurrera egiteko. Hingarren arazoak arlo sozialari dagokio. Gune hauek denbora gehiegatasuna nabaria da, eta gainera, etorri asko daude. Beraz, denetarik pikta bat dagoela esan daiteke. Zentzu horretan, egitasmo honen mamia hiruro arlo hauek osotasunean eragitean datza, azken finean, batak bestearekin eragiten baitute.

Zeintzuk dira egitasmoak aurreikusten dituen aldaketa konkretuak?

Egitasmo honetan, gauzak praktikara eramaterako garaian, bi era planteatu ditugu: batetik, egitasmo konkretuak egongo lirate-

ke: 28.000 milioi pezeta inbertituko dira datozen urteetan etxebizitzari berriak egiteko, enplegua garratzeko hainbat ekimen burutzeko eta abar. Bestetik, erakundeek egitasmo hauek abian jartzeko zer-nolako metodologia erabiliko duten kontuan izan behar da. Zentzu horretan, urteetan zehar auzo hauek alde hainbat alde sozial lanean aritu direla ezin dugu ahaztu.

Zein paper jokatzeko dituen honetan auzokideek?

Argi dago, hasiera hasieratik, egitasmo hau auzokideei zuzendua eta auzokideentzat egina dagoela. Azken finean, honen helburua nagusia auzokideen bizi kalitatea hobetzea da. Hori dela eta, guretzat ezinbestekoa da gure eguneroko lanean eurekin batera lan egitea, ahal dugun neurrian lagunduz. Gainera, auzokideek prozesu honetan aktiboki parte hartu dute, euren irizkiak eta proposamenak erakundeetara helarazi.

Euskal Herriko beste herri eta hiriburuetara zabaldu beharreko esperientzia dela uste al duzue?

Esperientzia hau Euskal Herri osoarentzat oso garrantzitsua dela pentsatzen dut. Gainera, lan egiteko modu honek politika egiteko beste era bat dagoela erakusten du, batez ere, arlo sozial horri dagokionez, herriaren ahaltsa entzuteko aukera eman delako. Hau ez da eguneroko politikan ikusten. Hori dela eta, hamaika arazo dituzten auzoetan halako lana egitea oso garrantzitsua dela pentsatzen dut, auzokideen jarrera, ikuspegia eta oportazioa mahai gainean jarrita.



Monika del Valle

## ZIRTOKA



Txillardegí

## Karlismoan beti

Oraín dela 35 urte izkiriatu nuen nik "Oraindik ere Karlismoa nagusi Euskal Herrian" saiakeratxo (ik. "Huntatza eta Hartza", II. kap.).

Eta zoritxarrez, eta funtsean bederen, gaur ere gauza berak errepika nirtzekeela iruditzen zait.

Alegia, gure herrian soluzioa espainiar errejonalismoan lor daitekeela sinestea neo-karlismoa besterik ez da. Eta tinko dirau gure artean.

Badirudi Arana-Goiri ez dugula oraindik irakurri. Eta badirudi, oso bereziki, berri jarraitzaileak omen dirinek ez dutela oraindik irakurri, edo ulertu; eta are gutxiago ematen dituztenak aintzakotzat Xabine Espainiar errejonalismo mota guztien kontra jaulkitako argudio sendoak.

Oraindik ere, chunka urtetan ikusi duguna ikusi ondoren ere, eta karlismoaren bidetik azkeneko mende t'rdi honetan herri honek jasan duena jasanik ere, badirudi ez dugula etsi nahi. Eta beti erarrakunza beretatik iritoko gauza ez garea.

Gure herriak ez du soluziorik Espainia barruan. Besterik ez baldin ere, iparrakarrak «españolak» ez direlako. Baina baita ere, eta sakonkiago, ez Don Alfonsok eta Don Carlos-ek behar duguna ekarriko ez digutela. Eta ez ASO-Ek eta ez PPak, jakina. Nazio-ASKatasuna, alegia.

Euskal Herriko Auto-Determinazio eskubidearen aitorra behar du.

Eta, beraz, Arana-Goirik xuxen ikusi zenez, bere Estatu eraikitzeko eskubidea (edo «berrekitzeko», zehazkiago minztatu).

Beste edozein herrik bezala. Hauxe da gakoa.

## AITZINDARIAK

## EUGÈNE COQUEBERT

1 8 0 6



ADMINISTRAZIÓNE INFERIORIAK HIZKUNTZA INKESTA ZABALA ESKATU DIO BARRNE MINISTERIOKO ESTATISTIKO HORI...

ce travail entièrement neuf servira la grammaire générale, l'histoire étymologique des langues, l'histoire des migrations des peuples, la géographie ancienne et du Moyen-Age.

INFORMATZALEK EKIPA ERATU DIZU: PIRENEA A- PHALETAKO DEPARTAMENDUKO PREFETA, BAIÓNAKO SUZPERA, MENDI BALDEKO KONTSULAK ETA FRANTZIAREN ENBAXADOREA MADRIDEN.

à son Excellence le Ministre de l'Intérieur

MONSIEUR REMARQUERA QUE LA COMMUNE DESQUILLE QUI FAIT AUJOURD'HUI PARTIE DE L'ARRONDISSEMENT D'OLORON, A ÉTÉ PORTÉE EN DÉDANS DE LA LIGNE: ON Y PARLE EN EFFET LA LANGUE BASQUE, ET LE BERNAIS N'Y EST PRESQUE PAS EN USAGE.

LAN GAITZARI LOTU ZAIO KARRASKAN: WILHELM VON HUMBOLDT HIRDIARRANGAND JO DU ZUZUNEAN!

à Monsieur le Baron Humboldt  
Ministre plénipotentiaire de Sa Majesté le Roi de Prusse

Il ne m'a pas été possible d'obtenir des notions ethnographiques et glossographiques relatives à la langue basque ou euscaren qui se parle dans les arrondissements de Bayonne et de Mauléon, le Guespizcoa, l'Alava, une partie de la Biscaye, de la Navarre et des montagnes de Saint-Jade.

EUSKARAREN GEOLINGUISTIKAREN SORTZAILA GORMUTUA ZEN BORTZ URTEK GEROTZIK.

NAFARTARREN HIZKUNTZAZ LANDATZ ARBEA ETA MALHERA IKASI ZITZUN.

1831EAN MIHTZAIAREN GEORAFIAREN GAINEKO LEHEN SAIOA PLAZATZTU DU.

